

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Ilegorriaren emaztea

Bill S. Ballinger

IGELA

358 orrialde

12 euro

Suspentsearen maisu baten lana

Xabier Olarra Lizasori zor zaio Bill S. Ballingerren (1912-1980) *The Wife of the Red-haired Man* lana euskaratzea. Kez egindako erretratua eleberri ospetsuaren egileak 1957an plazaratu zuen orain Igelak argitaratu duen liburu hau. Gizon bat hil eta gero Ameriketako Estatu Batuak zeharkatuz ihesean doan bikote baten gorabeherak azaltzen ditu kontakizunak, etengabe atzetik duten poliziaren narrazioa tartekatuz. Eraildakoa aberastasuna edozein modutan eskuratzen ohituta zegoen gizon gogorra zen, ihesi doan emakumearen bigarren senarra. Hiltzailea emakume horren aurreneko

senarra da, gaztaroan ezagututako amodio sutsua. Hura hiltzat eman zutelako ezkondu zen, handik urte batzuetara, oraintsu tiro bat jaso duenarekin. ■

Elefantearen eta saguaren irrikak

Berrogeita hamar tonako Tito elefanteak balet dantzaria izan nahi zuen. Titok lagun zuen Sagutxok berriz –oso txikia zelako esaten zitzaion horrela– borroka librean aritu nahi zuen. Oihan osoan inork serio hartuko ez zituelako, elefanteak saguari borrokan erakustea eta saguak elefanteari balet eskolak ematea erabaki zuten. Isilean zeramaten, baina zurrumurruak laster zabalitzen dira, eta azkenean oihaneko beste animaliek jakin egin zuten, nolabait, bi haien artean zer edo zer arraroa gertatzen ari zela. Eta, okerrera, badaezpada Tito eta Sagutxori auzi bat egitea erabaki zuten. Norberaren nahi bizienak defendatzearen beharraz dihardu Mikel Agirregomezkortak idatzi eta Gaston Mojaranek marraztu duen gaztetxoentzako istorio polit honek. ■



Tarzanik gabeko oihan batean

Mikel Agirregomezkorta, Gaston Mojarana

EREIN

24 orrialde / 6,21 euro



Jakin 163

Batzuen artean

JAKIN

144 orrialde

9,50 euro

Euskal kulturak iaz izandako emaitzen gaineko hausnarketak

2007ari amaiera eman zion alean, urtean zehar kulturaren alorrean gertatutakoaren balantzea eskaini du *Jakin* aldizkariak. Iritzi emaileen artean kulturaren esparru ugartan diharduten profesionalak daude, honakoak beste: Karmele Artetxe historialaria, Alberto Barandiaran kazetaria, Mikel Bujanda Euskalerrira irratiko zuzendaria, Pantxo Etxegoin Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria, Tere Irastortza irakasle eta idazlea, Kontseiluko idazkari nagusi Xabier Mendiguren Bereziartu, Xabier Mendiguren Elizegi idazle eta editorea, Laura Mintegi idazlea, Fito Rodriguez Euskal Idazleen Elkartearen lehendakaria, Allande Sokarros kazetaria, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Eguzki Urteaga soziologoa. ■

2006ko bat-bateko bertsoen uzta

Euskal Herri osoan 2006an plazaz plaza entzun eta ikusi ziren bertsoak gogoratu eta gordetzeko aukera eman du Bertsozaleen Elkartek kalera-tutako *Bapatean 2006* liburuak. 649 bertso dakartza denera. Norbaitek haiek entzun nahiko balitu, guztiak ez, baina liburuan musika ikur batekin agertzen direnak aurkitzeko behintzat www.bertsozale.com web-gunera jotzea besterik ez du. Bertso saio guztien informazioa biltzea ia ezinezkoa da, baina asko daude jasota. Nolanahi ere, besterik da grabatzen dena: 2006an 209 saio grabatu ziren, 314 ordu guztira. *Bapatean 2006* izenburuko liburuan bat-batean kantatutako bertsoak aurki daitezke, txapelketakoak izan ezik. Bertso-paperean alorretik ere ez dituzte jaso, bai ordea bat-bateko gazte sariketakoak. ■



Bapatean 2006

Batzuen artean

EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA
300 orrialde



Ola de frío

Karmelo C. Iribarren

RENACIMIENTO
100 orrialde
12 euro

Karmelo C. Iribarrenen poesia hiritarra

Karmelo C. Iribarrenek (Donostia, 1959) ohiko begirada etsi eta maitekorrez egin dio so inguratzen duenari eta bere buruari, bere azken liburuan. *Ola de frío* du izena poema bilduma berriak eta hirian harantz-honantz ibiliz ikusitakoetatik edota solairu altu baten leihoan jarrita antzeman dezakeenetik atera ditu gogotarako gaiak. Betirako joandakoak oso barnean ditu, baita nahi baino azkarrago hazten ari zaion alaba ere. Liburuko poemetako batean honela dio: *Como el viento que encuentra una rendija/ y se cuela en la habitación/ y lo desordena todo/ libros, facturas, poemas/ así llega/ en la*


vida/ el amor./ Nada es igual a partir de entonces/ ese caos/ es la felicidad./ Pero un día habrá que recoger./ Suerte si no te toca a ti. I

Jendaila haragijaleak bere mintzaera garatu zuenekoa

Zientzia Ekonomikoetan doktore da Mikel Lonbillo eta Jakue Legitx du goitizen literarioa. *Txoriaroa* da haren lehen ipuina. Milaka urte atzera eramango gaitu, gizadia bere gizatasunaz erabat ohartu gabe zegoen garaira. Orduan makina bat hegaldunek zeharkatzen zuten ortzia, lur ondolik ere pasaz. Haien txorrotxio ulertezinak liluratu zuen jendea, hizkera berezia eta hegaz egitea lotuta zeudela pentsatzeraino. Denbora igaro ahala orde, gizakiak hegaldun izatearen zailtasunaz ohartu ziren. I

Txoriaroa

Jakue Legitx

IMPRENTA F. ZUBIRI
36 orrialde / 8 euro

MARKOS ZAPIAIN

«Txillardegirentzat gizakia funtsean zimino hutsa da»

Zein da liburu hau egiteko zio nagusia?

Euskal eleberri modernoan ugaztuna izan da nagusi hasieratik beretik, zehazki ziminoa. Txillardegiren obra ziminoologia sakona da, besteak beste; polisemia handiko eleberriak dira bereak, baina orobat, Joan Mari Irigoienek dioenez, *polisimio* handikoak.

Azaldu al dezakezu hori pixka bat gehixeago?

Txillardegik usu nabaritu du, batetik, gizakion funtsezko aberetasuna; eta bestetik, ziminoen gaitasuna gormutuen zeinu hizkuntzak ikasi eta erabiltzeko, Ameslan-ez mintzatzeko, ehunka hitz erabiliz, hitz berriak sortuz, txinpantze elebidunak ahozko ingelesa entzun eta Ameslan-era itzuliz. Alegia, gizakion eta ziminoen artean ez dago funtsezko alderik. Txillardegirentzat gizakia funtsean zimino hutsa da. Hori dela-eta, euskal gizakiok irauin dezagun, proposamen berezi samarra egin duzu zuk *Txillardegirentzat zimino* liburuan...

Bai. Zeregin garrantzitsua dugu aurrerantzean euskaltzaleok: milaka zimino erosi, Ameslan-en pareko "Euzehizk" (Euskarazko zeinu hizkuntza) bat sortu (konplikatuagoa izan zen euskara batua), ziminoei irakatsi eta ondoren zimino euskaldunok ere estatistiketan zenbatuak izan daitezen erdietsi, hedabide erdaldunek haiek arrotzu baino lehen. Gainera, auskalo, baliteke ziminoek gizakiok bezain traidoreak ez izatea hedabide arrotzetara lerratzeke orduan. Txillardegiri eskertu behar diogu aukera itxaropentsu honi ere bide teorikoa zabaldu izana. Ziminoei euskaraz irakastea ez zaigu oso zaila egingo, baditugu aurrekariak eta zubiak.



INIGO AZKONA

Markos Zapiain, literaturaz eta zimino logiaz

Markos Zapiain ezaguna da egiten dituen literatur kritikengatik. Dударik gabe, liburuak

serio aztertuko ditu, baina azterketa horien ondorioak agertzeko orduan beti erabili izan du ironia puntu bat. Susa argitaletxearen eskutik plazaratu duen *Txillardegirentzat zimino* liburuan erakusten duen berbera. Izan ere, lan hau irakurtzen duenak jakin ahal izango du Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegiren* nobelei egileak eman dien interpretazioa. Aztertutako nobeletan gizakiak ziminoarekin duen loturaz Txillardegik esaten dituenak berresteko, Markos Zapiainek kontsultatutako genetistek gaiari buruz gaur egun defendatzen dutena ere ezagutuko du irakurleak. Ebo-luzioaren historia laburbilduz, hauxe dio Laztanguren genetistak: gizakia eta txinpantzea duela 11 milioi urte hasi



Txillardegirentzat zimino

Markos Zapiain

SUSA

130 orrialde
14 euro

ziren bereizten, baina gero berriz elkartu eta elkarrekin izan zituzten umeak. Duela 5,4 milioi urte ingururaino ez omen ziren behin betiko banandu. Hori kontuan izanda, hona hemen Zapiainek bere buruari egiten dion galdera: "zein ote da harreman haien ondorengoa: gizakia ala txinpantzea?" Antza, bietako bat izan liteke, gizakia ala txinpantzea, baina bietako bat baino ez. ■

egileari galdezka